

# Ongietorri Hernaniko Liburutegira

Lerro hauetan gure funtzionamenduari buruzko informazioa topatuko duzu. Edozein zalantza izanez gero gurekin harremanetan jarri, mesedez.



## Mailegu zerbitzua

Zerbitzu hau erabiltzeko ezinbestekoa da bazkide txartela izatea

Bazkide txartela egiteko liburutegian dagoen eskabide orria bete behar duzu.

Hamalau urte baino gutxiago dutenek guraso edo arduradunen baimena behar dute, hau dela eta, eskabide orrian bere datuak betetzea eta inprimakia sinatzea beharrezkoa izango da.

### Bazkide txartelarekin hartu ahal duzu:

Zure udal liburutegian: **3 liburu** eta **3 material berezi** (ikus-entzunezkoak, Cd-Rom etab)

Sareko gainerako udal liburutegietan: **5 liburu** eta **5 material berezi**. Horiek hartu dituzun liburutegietan itzuli behar dituzu

Dokumenturen bat galtzen baduzu, beste bat erosi beharko duzu hilabeteko epearen barruan liburutegira bueltatzeko. Horrela egin ezean, ezin izango duzu bazkide txartela erabili. Gauza bera egin behar da dokumentu bat hondatuta itzultzen denean.

# Epeak

**Liburuak** itzultzeko epea  
**21 egunekoa** da

**Material bereziak** itzultzeko  
epea **7 egunekoa** da

Itzultzeko epea amaitu ondorengo atzerapenak postaz jakinaraziko ditugu.

**Buzoia:** Biteriko sarreraren ondoan kokatuta dago. 24 orduko zerbitzua da. Bertan, edozein ordutan, maileguan hartutakoa itzultzerik duzu.



**Ez ahaztu:** epeak betetzea begirune kontua da. Gogoratu, zuk maileguan hartutakoa beste norbaitentzat ere interesgarria izan daitekeela.

# Luzapenak

**Liburuen** epea beste **21 egunez**  
luzatu ahal izango duzu

**Ikus-entzunezkoena** beste **7**  
inoren erreserbarik ez badute.

## Non egin?

### Liburutegian bertan

☎ 943 55 29 66    📞 688 635 462

**Internet-en bidez:** <http://liburutegia.hernani.eus/eu/epea-luzatu>



**Adi!** Erreserbak dituzten dokumentuen  
epea ezin da luzatu

# Erreserbak

Mailegatuta dauden bi dokumentuen erreserba egin dezakezu. Liburutegira iristen direnean jakinaraziko dizugu.



**Erne!** bi eguneko epea izango duzu jasotzeko. Epe hori bukatutakoan sistemak automatikoki ezabatuko du edo itxaron zerrendan dagoen hurrengoari pasako dio.

Eskatutakoa iristen denean jakinaraziko dizugu.

# Eskariak

**Liburutegian ez dagoen dokumenturen bat nahi baduzu eska dezakezu hauetako bide bat erabiliz:**

☎ 943 55 29 66    📞 688 635 462

**Liburutegian bertan dagoen inprimakia:**

datuak bete eta horretarako dagoen taulan utzi.

**Liburutegiko web orria:**

<http://liburutegia.hernani.eus/eu/zuk-esan>

**Katalogoa:** [katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua](http://katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua)



# Internet zerbitzua

Zerbitzu hau erabiltzeko ezinbestekoa da: **erabiltzailea** eta **pasahitza** izatea.

Horrelakorik **ez baduzu** eta liburutegiko bazkidea bazara: **eskatu** eta guk geuk emando dizkizugu.

10 urte arteko haurrek heldu batekin egon beharko dute.  
10-13 urte artekoek guraso edo tutore baten baimena behar dute.  
Baimen hau betetzeko liburutegira bertara etorri behar dute.

# Inpresora - Fotokopiagailua

Txuri beltzean: **0,10 €**

Koloretan: **0,50 €**

# Ikasgela

**Biteriko beheko solairuan dago.**

16 urtetik gorakoentzat da.

Jan edo edan behar baduzu kanpora atera, mesedez.

Telefonoa isilean eduki.

Espazio honetan isiltasuna ezinbestekoa da.

\* Gabriel Zelaiako ikasgela: **Biteri itxita dagoenean** baduzu gela hau erabiltzeko aukera. Informazioa liburutegian.

# Nahi izanez gero...

**Urte osoan helduentzat zein haurrentzat jarduerak antolatzen ditugu, hala nola:**

Literatur solasaldiak, Komikietaz solasaldiak, Irakurketa partekatuen saioak, Ipuin kontaketak, Irakurketa klubak, Ikuskizunak, Tailerrak, Gune tematikoak, lehiaketaren bat...

Irakurketa gidak kaleratzen ditugu ere, horietako bat -Kutunenak- erabiltzaileen parte-hartzearekin.



Gure agenda jarraitu:

<http://liburutegia.hernani.eus/eu/>

